

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

**OSASUNA**

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Ospitale Guneak (NOG) 2,7 milioi inbertitu ditu goi eremuko erresonantzia magnetikoko ekipo batean, segurtasuneko eta doitasuneko azken aurrerapenekin

*3 teslako ekipo berriak ekipo konbentzionalen intentsitatea bikoizten du, eta horrek lesioen eta tumoreen balorazioa hobetzea eta ikerketa aurreratua egitea ahalbidetzen du*

Ostirala, 2018.eko irailak 21

Nafarroako Ospitale Guneak 2019ko hasieran erresonantzia magnetikoko ekipo berria sartuko du, punta-puntakoa. Ekipo berriak segurtasunean azken aurrerapenak ditu, eta gaur egungo ekipo hedatueneren potentzia (1,5 tesla) bikoitzen du, denbora gutxiagoan diagnostikorako kalitate handiagoko irudiak lortzea ahalbidetzen digularik.



NOG B eraikina (Virgen del Camino erietxea zena).

Potentzia horrekin lesioak eta tumoreak askoz ere hobeto ikus daitezke, eta neuronen aktibazio-zona neuronalak denbora errealean behatu ere bai, horregatik garuneko ikerketa funtzionalak egiteko aukera ematen du. Hiru teslako erresonantzia magnetikoarekin (RM 3T) irudi garbiagoak lortzen dira, eta azkarrago, gaixoentzat erosoagoa delarik. Gailuak laguntza-funtzioa betetzen du nagusiki, baina ikerketa aurreraturako ere balio du.

Erresonantzia magnetikoko ekipo berria lizitazio-prozesuaren ostean esleitu da duela gutxi, eta NOG-Bren Erradiologia Ataleko erdisotoan (Virgen del Camino ospitalea zena) jarriko da. Ekipamendua errentan hartuko da bederatzi urterako, 2,7 milioi euroko prezioa ordainduta (308.314 euro/urtea, BEZ barne).

### Lesio oso txikiak edo hasiberriak detektatzeko aukera

Erresonantzia magnetikoko irudi bidezko ikerketetan eremu magnetiko handia (imana) eta irrati-frekuentziako uhinak erabiltzen dira gorputz barneko egiturak eta organoak begiratzeko. Irudi horien bidez erradiologoak gaixotasun ugari diagnostika ditzake, lotailu-lesioetatik hasita tumoreetaraino. RM 3T kasuan irudiak zehatzagoak dira, eta beste ekipo batzuetan oharkabean pasa daitezkeen lesio hasiberriak detektatzeko

aukera ematen dute.

Hiru teslako erresonantzia magnetikoak zehaztasun handiagoa ematen digu gaixotasunak diagnostikatzeko (osteoartikularrak, neurologikoak, kardiobaskularrak kasu) eta baita tumore ezberdinak baloratzeko (burua, bularra, gibela, behazun-bidea, umetokia, prostata, hezurak...) ere.

Bestalde, teknika horrek ikerketarako abantaila ugari ditu. Gaur egun, erresonantzia magnetikoko aurrerapen gehienak 3 teslako teknologian oinarritzen dira, eta ikerketa neurologiko aurreratuak azpimarratzekoak dira.

### **37.000 erresonantzia urtero**

Nafarroako Ospitale Gunearen erresonantzia magnetikoko ekipo berriak osatu eta zabaldu egingo ditu sistema publikoko beste hiru gailuetan eta Osasunbidea- Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako unitate mugikorretan jada egiten diren probak. Gainera, aldi berean beste ekipo bat jarriko dute Tuterako "Reina Sofía" ospitalean. Nafarroako Osasun Sistemak gutxi gorabehera 37.000 erresonantzia magnetiko egiten ditu urtero.